

ZERBITZU TEKNIKOA

Babesa 4.7 Programaren Ikus Identitatearen garapena

ERREFERENTZIAZKO TERMINOAK

Aurrekariak:

ACNURen Espainiako Batzordearen esparruan, **ACNUR Euskal Batzordearen** mandatua da ACNURen lanean laguntzea, eta, aldi berean, errefuxiatuen eta desplazatuen eskubideen gaineko ezagutza eta defentsa sustatzea justizia globalarekin konprometitua dagoen gizarte aktiboa suspertzeko. Arlo horren barruan, **gizarte eraldaketarako hezkuntza** ekimenak bultzatzen ditugu, irakasleak eta etorkizuneko hezitzaileak prestatzearen aldeko apustua eginez, gizarte inklusibo eta solidarioak eraikitzeko funtsezko eragile izan daitezten.

Testuinguru horretan, **Babesa 4.7** programaren helburua etorkizuneko irakasleen konpromisoa eta sentsibilizazioa sustatzea da, zehazki, errefuxiatuen eskubideen defentsan. Horretarako, proiektuak asiloari eta babeslekuaren gaineko funtsezko kontzeptuei buruzko prestakuntza eskaintzen du, tresna didaktikoak eskaintzen ditu eta gizarte-gaitasuna bultzatzen du. Bere helburua hezkuntza fakultateetako ikasleek gai horiek haien etorkizuneko praktika profesionalean integratzea da. Halaber, ekimenaren abiapuntua da hezkuntza funtsezko zutabea dela justizia globalarekin konprometitutako herritartasuna eraikitzeko, irakasleek zeregin garrantzitsua baitute balioak eta ezagutzak transmititzeko garaian.

Programaren luzapen gisa, **Babesa 4.7 Aktiboan** sortzen da, jardunean dauden irakasleei zuzendua. Beren ikastetxeetan proiektu komunitarioak garatzeko tresna didaktikoen kutxa bat eskaintzea da helburua. Aipatutako bi programen bitartez, errefuxiatuen giza eskubideekiko konpromisoa indartu nahi da, hezkuntzaz eta ekintza kolektiboaz baliatuz.

Bi programek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** eta **Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren** babesa dute, eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru probintzietan burutzen diren fase desberdinak finantzatzen dituzte. Gainera, lankidetzara estua dugu **UPV/EHUKo Hezkuntza Fakultateko** irakasleekin, gure ekintzen koherentzia eta egokitasun pedagogikoa bermatzeko.

Gaur egun, Babesa 4.7 programek oinarrizko identitate bisuala dute, logotipo bat, koloreak eta ezarritako tipografiak barne. Hala ere, komunikazio- eta hedapen-materialak etengabe ekoizten direnez, beharrezkoa da identitate grafiko osatuagoa eta kohesionatuagoa garatzea, programaren balioak eta helburuak islatuko dituena.

Zerbitzuaren helburuak

Zerbitzu honen helburua **ikus identitate sendo, erakargarri eta eraginkor** bat garatzea da, **Babesa 4.7** programaren komunikazio- eta hedapen-material guztiak bateratuko dituen, dagoen irudi instituzionala errespetatuz.

Identitate horrek tonu **inspiratzailea, pedagogikoa, dinamikoa eta zinezkoa** islatu behar du, programaren balioekin lerrokatua eta xede-taldeari egokitua:

- **Inspiratzailea:** Hezkuntzaren eta gizarte-konpromisoaren bidez etorkizun hobea eraikitzeko aukera transmitituz.

- **Pedagogikoa:** Kontzeptu konplexuak eskuragarri eta ulergarri eginez, betiere **giza eskubideen** eta **generoaren** ikuspegitik.
- **Dinamikoa eta gaztea:** Sare sozialetako joera bisualak eta hizkuntza ACNUR Euskal Batzordearen identitate eta misioarekin orekatuz.
- **Zinezkoa:** Programaren benetako konpromisoa islatuz, dramatismoetan erori gabe, konbentzimendua eta erabakitasuna transmitituz.

Emaitzako ildo grafikoak programaren material guztietan koherentzia bisuala mantendu beharko du, bai formatu digitalean, bai inprimatuan, eta Babesa 4.7ko taldearentzako erabilgarria izan beharko da beste eduki batzuen produkzioan.

Irismena eta entregatzekoak

Ildo grafikoa jada existitzen den logotipoan, koloreetan eta tipografian oinarritu beharko da. Helburua marka irudia berritzea eta zabaltzea da, eta, aldi berean, programa honen esparruan egindako gainerako produktuen koherentzia eta jarraitutasuna zaintzea. Hauek dira entregatu beharreko produktuak:

1. Fasea:

Marka gidaliburua.

Jaso beharrekoak:

- Logotipoa, favicon eta aldaerak – Logotipoa existitzen den arren, bi aldaera eskatuko dira proiektuentzako.
- Kolore korporatiboak– Egon badaude ere, beharrezkoa da horien erabilera sistematizatzea eta 5 aldaera bereiztea azpiproiektuak bereizteko.
- Tipografiak –Ezarrita daude
- Patrioiak
- Pictogramak (25 guztira)
- Erabilera gidaliburua

2. Fasea:

Dokumentuen txantiloia:

- Power Point (maketazioak ikusi)*
- Txostena
- One-page
- E-mailaren goiburua
- Unitate didaktikoak garatzeko txantiloia
- Parte hartu izanaren ziurtagiria

Sare sozialetan bideoak eta piezak ekoizteko elementuak

- Logoaren animazioa
- Irekitzeko eta ixteko gortinak, bideoetarako

Maketazioak:

- Power Point*: power pointeko txantiloia lehendik dagoen ppt batetik abiatuta garatuko da, txantiloia honen edukira egokituta.
- Gida didaktikoa (30 orrialde, gutxi gorabehera)

Metodologia eta Epeak

Faseetan lan egiteko proposamena. 1. fasea amaitu eta onartu ondoren, 2. faseari ekingo zaio.

Eskatutako profila

Hautaketa irizpideak:

- Diseinu grafikoan eta brandingean esperientzia izatea.
- Antzeko lanen portafolio frogagarria aurkeztea.

Baloragarria:

Ekonomia sozial eta solidarioan parte hartzea, GKEentzako edo proiektu sozialentzako diseinuari buruzko ezagutzak izatea, euskara eta Euskadiko gizarte zibila ezagutzea.

EPEAK:

1. *FASEA:* entregak 2025eko apirilaren 30rako prest
2. *FASEA:* entregak 2025eko uztailaren 31rako prest

Proposamenen jasotzea

Proposamenak martxoaren 17ra arte jasoko dira.

Proposamenak helbide elektroniko hauetara bidaliko dira: iratxe.gonzalezaspiaz@eacnur.org eta andrea.alcobendas@eacnur.org

Proposamenen edukia:

- Proiektuan parte hartuko duen lantaldearen CVa eta portfolioa.
- Aurrekontu xehatua, faseka eta entregetan banatua.
- Gure ebaluaziorako garrantzitsutzat jotzen den beste edozein informazio.